



**LEGAZPIKO
UDALA**

2020rako LEGAZPIN ENPLEGUA SUSTATZEKO PLANAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Legazpiko Udalak 45.000€ko diru-partida aurreikusi du 2020ko Aurrekontuetan, aurtengo ekitaldian enplegua sustatzeko.

Udalak sustatutako 2020ko Enplegu-plana espazio publikoak biziberritzeko erronka gisa finkatu da. Horrekin hiri-ingurunea hobetzea proposatzen da, modu horretan merkataritzarako eta biztanleen eta bisitarien mugikortasunerako espazio egokia sortuz.

Era berean, Lanbiden izena emanda duten langabetuen eta enplegu-eskatzailen kontratazioa erraztuko duen Plan bat jarri nahi da martxan, covid-19aren ondorioz langabezia daudenen enplegarritasuna handitu asmoz.

1. Kontratazioak:

Aipatu Enplegu-planaren baitan, Legazpiko Udalak 6 hilabeteko lanaldi osoko 2 kontratazio egingo ditu. Zehazki, ondorengo lanbide-profila izango duten pertsonak kontratatuko dira: zeregin askotariko 2 peioi.

BASES REGULADORAS DEL PLAN PARA PROMOVER EL EMPLEO EN LEGAZPI PARA EL AÑO 2020.

El Ayuntamiento de Legazpi ha previsto en los Presupuestos del año 2020, una partida de 45.000€ para la promoción del empleo durante el presente ejercicio.

El Plan de Empleo de 2020, impulsado por el Ayuntamiento, se fija como reto la revitalización de espacios públicos. Con ello, se propone mejorar el entorno urbano generando un espacio adecuado para el comercio y la movilidad de residentes y visitantes.

Así mismo, se trata de poner en marcha un Plan para facilitar la contratación de personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide, que se encuentren en desempleo como consecuencia del covid-19.

1. Contrataciones:

En el ámbito del referido Plan de Empleo, el Ayuntamiento de Legazpi realizará 2 contrataciones para un plazo de 6 meses y a jornada completa. En concreto, se contratará a 2 peones de cometidos múltiples.



**LEGAZPIKO
UDALA**

Hauek dira kontratazio horien helburuak:

- Espazio publikoen erabilera bultzatzea, haiek behar bezala egokituz.
- Hiri-altzariak, garraio publikoetako inguruneak eta instalazio turistikoak, kiroltakoak, hezkuntzakoak eta kulturakoak egokitzea eta hobetzea.

2. Kontratatu diren pertsonen baldintzak:

Kontratatu diren pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emandakoak izango dira eta bertan enplegu-eskatzaille gisa azalduko dira. Halaber, peoi gisa gutxienez 3 hilabeteko esperientzia izan beharko dute.

Modu berean, hautaketa-prozesuan lehenetsiko dira azkeneko hiru (3) urtetan enplegu-plan baten barruan Legazpiko udaletxean Zerbitzurik prestatu ez duten pertsonak.

3. Kontratatu diren pertsonak aukeratzea:

Kontratatu diren pertsonak LANBIDEK aukeratuko ditu, aurreko atalean ezarritako baldintzak beteko dituzten eta lan egiteko berak aktibatutako enplegu-eskaintzetan izena emango dutenen artean.

Aukeraketa egiteko ondorengo **baremoa** erabiliko da:

El objeto de estas contrataciones es el siguiente:

- Potenciar el uso de los espacios públicos a través de la adecuación de los mismos.
- Adecuar y mejorar el mobiliario urbano, entornos de transporte público, e instalaciones turísticas, deportivas, educativas y culturales.

2. Condiciones de las personas contratadas:

Las personas contratadas deberán estar desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y deben contar con una experiencia mínima de 3 meses como peón.

Así mismo, se priorizará en el proceso de selección a aquellas personas que no hayan prestado servicios en el Ayuntamiento de Legazpi en los 3 últimos años en el marco de un plan de empleo.

3. Selección de las personas contratadas:

La selección de las personas contratadas, se realizará por LANBIDE de entre las personas que cumpliendo los requisitos establecidos en el apartado anterior, se hayan inscrito en la oferta de empleo activada por el mencionado organismo a tal efecto.

Para realizar la selección se utilizará el siguiente **baremo**:



**LEGAZPIKO
UDALA**

– Eskatzen dena baino goragoko peoi gisa duen esperientzia (3 hilabete): 2 puntu 3 hilabeteko, eta gehienez 8.

– Langabezian egotea covid-19aren ondorioz (langabezia-datak martxoaren 14aren eta eskabideak aurkezteko azken egunaren artekoa izan behar du): 6 puntu.

– Iraupen luzeko langabea izatea: 3 puntu.

– Emakumea izatea: 2 puntu.

***Berdinketa emanaz gero, lehentasuna adinez nagusienak izango du.

4. Kontratatuak diren pertsonen lan-baldintzak:

Kontratazioak, obra edo zerbitzu zehatzetarako aldi baterako lan-kontratuen bidez egingo dira. Kontratuak 6 hilabetekoak eta lanaldi osokoak izango dira.

Hileko ordainsari gordina 1.671€koa izango da (Udalhitz hitzarmen kolektiboaren 5. maila).

5. Izena emateko epea.

Interesatuta dauden pertsonak Lanbidek kudeatuko duen eskaintzan eman behar dute izena.

-Experiencia como peón superior a la que se pide como requisito (3 meses): 2 puntos por cada 3 meses hasta un máximo de 8.

-Estar en situación de desempleo como consecuencia del covid-19 (la fecha de desempleo deberá situarse entre el 14 de marzo y el último día de presentación de instancias): 6 puntos.

-Ser parado/a larga duración: 3 puntos.

-Ser mujer: 2 puntos.

***En caso de empate tendrá preferencia la persona de mayor edad.

4. Condiciones laborales de las personas contratadas.

Las contrataciones se realizarán, mediante contratos laborales temporales de obra o servicio determinado, para un plazo de 6 meses y a jornada completa.

La retribución bruta total mensual será de 1.671€ (Nivel 5 del Convenio Colectivo Udalhitz).

5. Plazo de inscripción.

Las personas interesadas deberán inscribirse en la oferta que a tal efecto gestione Lanbide.



**LEGAZPIKO
UDALA**

El plazo para inscribirse se iniciará el 17 de noviembre y finalizará el 27 de noviembre.

Izena emateko epea azaroaren 17an hasiko da eta azaroaren 27an bukatuko da.